

FINANTZA-OHITURA OSASUNGARRIAK

Zer dira finantza-ohitura osasungarriak?

Gure dirua ondo erabiltzeko jarraitzen ditugun gomendioak dira.

Ohitura horiei esker honako hauek ikasiko ditugu:

- Kontuz gastatu.
- Beharrezkoak ez diren zorrak saihestu.
- Etorkizun seguruagoa izan.

Zer ohiturei jarrai diezaiekezu zure dirua zaintzeko?

Gauza asko egin ditzakezu zure dirua zaintzeko.

Jarraian, 5 ohitura erraz azalduko dizkizugu, zure dirua babesteko eta hobeto bizitzen laguntzeko.

1. OHITURA. ZURE DIRUA ZERTAN GASTATZEN DUZUN JAKITEA

Garrantzitsua da zenbat diru eta zer gauzatan gastatzen duzun jakitea.

Hilero idatzi:

- Zenbat diru irabazi duzun.
- Zenbat ordaindu duzun.
- Zertan gastatu duzu.

Horrela jakingo duzu zenbat diru duzun eta, beharrezkoak ez izateagatik, zer gauza utzi ahal dizkiozun erosteari.

2. OHITURA. HILERO APUR BAT GORDE

Nahiz eta diru apur bat aurreztu,
hilero egiten baduzu,
azkenean, aurrezki ederra izango duzu.

10, 50 edo 200 euro aurrez ditzakezu,
zure gaitasunaren arabera.

Hilero eginez gero, dirua aurreztuko duzu,
larrialdiren bat edo ustekabeko gasturen bat gertatzen bada ere.

3. OHITURA. PENTSATU EROSI AURRETIK

Zerbait erosi aurretik, galdetu zeure buruari:
Benetan behar al dut?

Batzuetan pentsatu gabe erosten dugu,
eta gero damutu egiten gara.

4. OHITURA. ERABILI TXARTELA ONDO

Kreditu-txartela erabiltzen baduzu,
gogoratu hileko kuota garaiz ordaintzea.
Horrela ez duzu interesik ordaindu beharko.

Sekula ez gastatu daukazun baino diru gehiago.

5. OHITURA. GALDETU, ZALANTZARIK BADUZU

Ez duzu zertan diruari buruz dena jakin behar.
Zalantzarik baduzu, zure finantza-erakundeak lagunduko dizu.

Galdetzea ikasteko eta erabaki hobeak hartzeko
modu egokia da.

Zergatik dira garrantzitsuak ohitura horiek?

Finantza-ohitura osasungarriek hauetan lagundu egingo dizutelako:

- Zure diruaren gaineko kontrol handiagoa izatea.
- Larrialdiei edo ezustekoei aurre egitea.
- Kezka ekonomiko gutxiagorekin bizitzea.

Zure dirua kontrolatzen baduzu,
lasaitasun eta ongizate handiagoa izango duzu bizitzan.